

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Atharratze-Sorholüze



Aurkibidea

Udalerria: Atharratze-Sorholüze

Sarrera



Atharratze-Sorholüze Zuberoako bosgarren udalerri nagusia da, Maule, Sohüta, Barkoxe eta Bildoze-Onizpea ondoren. Halaber, Basabürüako hiriburua da. Udalerri mugakide hauexek ditu: Barkoxe iparraldean, Aloze eta Iruri mendebaldean, Montori hego-ekialdean eta Liginaga-Astüe hegoaldean. 656 biztanle zituen 1999an. Probintziako beste udalerrien moduan, galera demografiko etengabekoa jasan ditu azken mendean. Izan ere, 1896an, 1.100 lagun bizi ziren bertan. Udalerriko ekonomia laborantzan dago oinarritua (abelazkuntza, belardiak).

- **Biztanleak:** 605
- **Euskaldunak:** %74,84

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **34**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **34**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak



Pierra Arhancet (1919-2011)

Zihigan sortua izan arren, Atharratzen eraman du bizia, laborantzan. Bigarren Mundu Gerran preso egin zuen aleman armadak, eta bost urtez egon zen preso, bai eta Alemaniako fabriketan ere, Stuttgarten, batez ere.



Marianne Arhancet Üthürri (1922)

Atharratzen bizi izana beti, Madalena auzoan. Lehen senarra Bigarren Mundu Gerran hil zuten, eta berantago ezkondu zen Pierra Arhancetekin. Laborantzari aritu da beti. Ogia berak egiten zuen etxeko labean, larunbatetan.

Jean Hastoy (1919)



Eliza ondoan sortua, Aiscar etxean. Aita Laurentx Hastoy zuen, 1876an Gotainen sortu baina gurasoekin Atharratzera bizitzera joana, orai Piellenia ostaturik den lekura. Ama, Gracieuse Goux, Ligikoa zen. 1910eko hamarkadan, eliza ondoan zen Aiscar izeneko borda erosi zuten, bota eta etxe baten eraikitzeko. Zortzi seme-alaba izan zituzten; Jean hirugarrena zen. Anai-arreba bixkiak Lehen Mundu Gerra denboran jaio eta hil ziren. Aita ere gerran ibili zen borrokan. Jean Aloseko eskola pribatura joan zen, etxe ondoan zena; zertifikata erdietsi, eta Maulera bidali zuten, Saint Francois ikastetxera. Batxilerra han hasi zuen, eta Urtaritxeko seminarioan urtebete eman zuen gero. Han Menditarrek mugimenduan parte hartu zuen, haien aldizkarian artikuluak idatziz. Zerbitzu militarra egin ondotik, II. Mundu Gerra hasi zen, eta hara deitua izan zen. Frantziak gerla galdu zuen, eta Jean preso egon zen; ihes egin zuen, lagun batekin. Mauleko Maddi Castetsekin ezkondu zen, 1942an, eta bost haur izan zituzten. Aitaren negozioan ibili zen, Pierer anaiarekin batera: "haitia" ardoa, nekazaritza produktuak, ikatza eta gatza saltzen zituzten.

Félicie Pordoy Hastoy (1922)



Félicie Pordoy Larraine herrian sortu zen, Patxaleko etxean. Aita Jean Pordoy zen, Larraineiko Athabia etxekoa eta ama, berriz, Marianne Jauregiber, Larraineiko Etxegohenekoa.

Féliciek anai bat zuen, sei urte zaharragoa. Féliciek bi urte zituela, familia Atharratzera joan zen bizitzera; izan ere, osaba batek, amaren anaiak, saltegia (tabako bulegoa, epizeria) arrebaren esku utzi zuen. Ondorioz, atharraztarra sentitzen da. 25 urte zituelarik, Louis Hastoyrekin ezkondu zen Félicie; Louis etxegintza enpresa baten buru zen (haren aitak sortua). Lau haur izan zituzten elgarrekin. Féliciek Atharrazteko 18 ganberako Bixta Eder hotela atxiki zuen (aurretik, amaginarrebak atxiki zuen).

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Zigorra eskolan euskaraz egiteagatik (ATH-001/003)

Hitz egiten, irakurtzen eta idazten ikasten zuten eskolan. "Aharran", borrokan, ere bai. Irakasleak jo egiten zituen euskaraz eginez gero erregela batez. Edo eta makila bat ematen zitzaion egiten zuenari, eta hark beste bati pasatu behar zion. Zigorra besoak zabalik egotea izaten zen. Etxean ez zuten ezer esaten, badaezpada ere.

2. Ardia, behiak, txerriak..., denetik etxean (ATH-001/004)

Eskolara ahal zuten guztietan joaten ziren, baina inoiz geratzen ziren etxaldean lanean. Ardiak, behiak, txerriak... denetik zuten. 80 bat ardi izaten zituzten, gehienara ere.

3. Udan, ardiekin bortuetara eta belarra ontzen etxean (ATH-001/005)

Bortiala (mendira) udan ardiekin joaten zirenean, lau edo bosten artean zaintzen zituzten eta txandaka aritzen ziren. Etxean "dalliekin" (segarekin) moztzen zuten belarra. Lehortu ondoren, "iatzuna" (sendorra) eginda jasotzen zuten sabaira. Oso lan gaiztoa zen.

4. Garia jotzen auzolanean (ATH-001/006)

Ogia (garia) makinaz jotzen zen, auzolanean, sei edo zazpi etxeren artean.

5. Artozuritzea (ATH-001/007)

Artazuritze egunetan lana eta festa batzen ziren. Zuritzaileak, ganbarara jasotzaileak, jostalariak... Pare bat gautako lana izaten zen. Gizon eta emakume, denak aritzen ziren arto zuritzen zein gari-jotzen.

6. Txerria hiltzen (ATH-001/009)

Batzuen artean txerriari eutsi eta mahai gainean hiltzen zen. Gero lastoaz erre. Hesteak errekan garbitzen ziren. Tripotak emazteek egiten zituzten, gizonak berriketan zebiltzan bitartean.

7. Ardi-moztea (ATH-001/010)

Bortutik, Maidalena menditik, ardiak etxera ekarri eta ilea moztu; eta hurrengo egunean bortura itzultzen zituzten. Familiakoen artean egiten zuten lana. Orain urtean bi aldiz moztzen da, lehena uztailaren bukaeran eta bigarrena urrian.

8. Behiak txahalak egiteko, ez esnetarako (ATH-001/012)

Hamabost bat behi izaten zen etxe bakoitzean. Txahalak egiteko ziren gehienbat. Esnea etxerako bakarrik, ez zen saltzen.

9. Ogia labean egiten (ATH-001/013)

Garia ("ogia") ez zen saltzen. Ogia egiteko eta abereentzako erabiltzen zen. Astean behin egiten zuten, neskenegunez (larunbata). Goizeko zortzietako piztu behar izaten zen labea ondo berotu zedin. Labea gorritutakoan, eguerdi aldera sartzen zen ogia.

10. Taloa erretzen (ATH-001/014)

Arto-irina eta ogi-irina nahastuta egiten zuten taloa. Pierrak dio oso gozoa zela xingarrarekin edo arrautza frijituarekin. Bortuan zeudenean taloa nola erretzen zuten kontatzen du.

11. Gaztainak, zopa eta abar su aitzinean (ATH-001/015)

Zartaginean erretzen zituzten gaztainak. "Su aitzinin" (beheko suan) egiten zuten dena. Zopa ere bai, "tipiña" esaten zaion pertz batean. Noeren garaiko istorioak direla dio Pierrak, umorez.

12. Karburo-argia besteak baino hobea (ATH-001/017)

Karburo argia "lanterna" (petrolio-zkoa) eta "buxia" baino hobea omen zen. Karburo-ontziari "zetilena" deitzen zitzaion. Erdi ilunpean egoten ziren. Eskerrak etxeko lanak begiak itxita ere bazekizkiten.

13. Uztarrirako behiak, ez idiak (ATH-001/018)

Iratzea anitz biltzen zuten. Lastoa ere bai mandoei-eta emateko. Mando ugari zen lehen garraio-lanetarako. Idirik, berriz, ez, behiak erabiltzen ziren uztarrarian. Uztarri bakarrarekin hezitzen zituzten behiak.

14. Atharratzera mezara, 4 km-ko bidean (ATH-001/019)

Mezara Atharratzera joaten ziren, amatxi zaldi gainean eta eurak oinez. 4 kilometroko bidea dago herrira. Auzoan bazen eskola baina elizarik ez. Maidalengan bada eliza, baina urtean birritan bakarrik ematen da meza.

15. San Martin eta San Markos, egun seinalatuak (ATH-001/021)

Mariannek dio azaroaren hamaika (San Martin eguna) zela errenta-eta pagatzeko eguna. San Markos egunez prozesioa egiten zen Atharratzetik hurbil duten baseliza bateraino.

16. Bestaberri (Berbizkunde) Eguna (ATH-001/022)

Atharratzen prozesioa egiten zen Bestaberri egunez. Kanpoan ezartzen zen aldarea, eta bidea lorez eta belarrez estaltzen zen. Klika (musikariak) ere baziren. Baina haren beharrik ez omen zen elizan, oso kantari onak zeudelako.

17. Mezara eta bezperetara igandetan (ATH-001/023)

Igande goizean mezara jaisten ziren herrira (4 km), bazkaritara itzuli eta arratsaldean bezperetara. Mariannek dio ez zela beste distrazionerik, baina orain bezain uros (zoriontsu) bizi zirela.

18. Absoluziorik ez mutilekin dantzan eginez gero (ATH-001/024)

Agorrilean ziren Atharratzeko festak, hiru egunez. Txirula eta tanburrina jo eta dantzan. Xiberoko dantzez gain, akordeoiaz bestelako dantzak soinuak ere jotzen ziren. Mutilekin dantzan eginez gero, apaizak ez omen zuen absoluziorik ematen. Orduan estuegi eta orain laxoegi, dio Pierrak.

19. Marianneren senarra alemanek hil erresistentzian aritzeagatik (ATH-001/026)

Mariannek dio Atharratzera bai, baina Maulera eta ez zirela joaten. Ez duela anitz profitatu gazte denbora. Beti lanean etxean. Aita gazterik galdu zuen, senarra ere bai, ezkondu eta hiru hilabetera, alemanek eraman eta garbitu baitzuten erresistentzian aritzeagatik. Salaketa baten erruz erori omen ziren bera eta beste bi lagun.

20. Bost urtez preso Alemanian (ATH-001/028)

Pierra 1939 bukaeran joan zen soldadu eta 1940ko udan preso hartu zuten alemanek Alemaniako muga inguruan. Ia bost urte egin zituen gatibu, 1945eko maiatzean askatu baitzuten. 3.000 lagun zeuden preso batera.

21. Alemanek atzetik inguratu eta preso hartu (ATH-001/029)

Bere gudari-talde osoa harrapatu zuten alemanek mugan, atzetik inguratuta. Ez zen hildakorik izan. Bi egunez eliza batean itxita eduki zituzten ezer jan eta edan gabe. 32 ziren, horietatik 17 euskaldun. "Chasseurs des Pyrénées" gudataldea harrapatu zuten, eta anitz euskadun zen haien artean.

22. Stutgartera fabrikara esklabo gisa lanera (ATH-001/030)

Zazpi hilabetez beste leku baten lanean jardun ondoren, Mercedes fabrikara eraman zuten Pierra lanera, Stuttgart hirira. Oso gogorrak izan omen ziren 1941-42 urteak.

23. Alemanek Errusian gerra galdu (ATH-001/031)

Frantsesez ari da une batez. Errusiarrak irabazi omen zuten gerla. Stalingraden galdu zuten alemanek. Bi unitate handienak han galdu zituzten. Bi aldiz inguratu eta hartu zuten hiria, baina aitzinean zituzten errusiar guztiak hil arren, hurrengo egunean bi aldiz gehiago agertzen omen ziren, gizon eta emazte.

24. 1942az geroztik alemanen jarrera bigundu presoekiko (ATH-001/032)

42az geroztik alemanen presoekiko jarrera asko bigundu omen zen. Begi-bistakoa zen gibelerat zihoazela. Baina aurretik edonor garbitzen zuten edozein huskeriagatik.

25. 1945eko aliatuen bonbardaketak, arorik izugarriena (ATH-001/033)

1945ko aire-bonbardaketak, berak ezagutu duen arorik izugarriena. Hegazkin amerikarrak, ingelesak, frantsesak izugarrizko sarraskia egin zuten Alemaniako hirietan. 1944ko uztailaren 14an 80 bonbardarik bi orenez

bonbardatu zuten Stuttgart. 3.000 lagun hil ziren. Bera zegoen lekuan, jantoki azpiko babeslekuan bonba bat erori eta 156 lagun hil ziren, bakarra salbatu. Bera ez zegoen berandu heldu zelako eta zaindaria ez ziolako sartzen utzi. Mercedes fabrika guztiz birrinduta geratu zen.

26. Libre geratu ondoren, heriotza-beldurrik handiena (ATH-001/034)

Liberatu zituztenean, Austriako mugara eraman zituzten. Kamioi gidariak amerikarrak ziren; mozkortuta omen zeuden eta edozein lekutatik joaten omen ziren. Bost urte preso eta bonbapean egon ondoren, orduantxe pentsatu omen zuen hil behar zuela. Ez zuen oso iritzi ona atera amerikarrez. Gidariok zoro eta basati hutsak omen ziren.

27. Austriako mugatik etxera (ATH-001/035)

Gurutze Gorriaren esku geratu ziren gero. Trenetxe etorri ziren etxera, Irun eta Maule barna. Mauletik Zihigara oinez.

28. Dena eraisten zuten su-bonbak (ATH-001/036)

"Bonbardameta terrible da", errepikatzen du berriz. Su-bonba bereziak jaurtitzen omen zituzten, lurra ukitu bezain laster inguruko etxeak eta dena eraisten zituztenak. Stuttgarten ez zen ezer geratu zutik. "C'est horrible, ez da esplikatzen ahal".

29. Euskarazko hitzekin zentsura saihestu (ATH-001/037)

Hilean behin idatz zezaketen etxera. Zentsura gogorra zegoen baina batzuetan saihestea lortzen zuten euskarazko hitzak erabiliz. Janari-paketea ere hartzen zuten etxetik. Zaindarien gaztak eta abar erditik ebakitzen zituzten barruan ezer zekartenez begiratzeko.

30. Ihes egiteko saiakera (ATH-001/039)

Barkoxtar batek eta Pierrak Alemaniatik ihes egiteko plana egin zuten. Baina astebete lehenago lekuz aldatu zuten Pierra, salaketaren bat zela medio, ziurrenik. Barkoxtarrak ihes egin zuen, baina Suitzako mugan harrapatu zuten. Duela gutxi hil da.

31. Gestapokoak Atharratzen (ATH-001/041)

Marianne baserrian zen gerla denboran. Alemaniak janariz (ardi, txahal...) hornitu behar izaten zituzten eske zetozenean. Atharratzen ziren Gestapokoak. Ez zuen errazionamendu kartilarik eta horrelakorik ezagutu. Herritik urrun bizi ziren eta tratu gutxi izan zuten alemanekin.

32. Zenbait jende aberastu gerrari esker (ATH-001/043)

Gerla amaitu zenean ezagutu omen zuen nork egin zuen dirua gerrari esker eta nork ez. Berak, bost urteren ondoren, ez omen zuen ezta mila libera ere. Eta herriko zenbait aberastu egin omen zen.

33. Mugalariak Santa Grazin eta Irati aldean (ATH-001/044)

Gestaporen gune inportantea zen Atharratze, muga kontrolatzeko. Santa Grazitarrak mugalari gogorrak ziren. Irati eta beste leku batzuetatik ere pasatzen zen jendea hegoaldera.

34. Anitzek lagundu zieten alemanei (ATH-001/045)

Alemanei lagundu zien jende anitzek, sosagatik, noski. Alemanak joan zirelarik, zigorrak izan ziren; emakumeei ilea moztu eta horrelakorik izan zen galdetuta, Mariannek baietz dio, baina eurek ez zituztela ikusi, ez zirelako herrira jaisten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com